

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

Urbanizazio proiektuaren hasierako onespena

Zuhatzu Kuartango herriko E fasearen urbanizazioaren egikaritze materialerako urbanizazio eta espaloien proiektuari hasierako onespena eman zaionez, Zuhatzu Kuartangoko Administrazio Batzarrak eskatuta izapidetua, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 196.2 artikuluekin bat etorriz, jendaurrean jartzen da hogei egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita. Espediente horretan interesa dutenak agertu ahal izango dira, eta egoki jotzen dituzten alegazio, iradokizun edo erreklamazio guztiak egin ahal izango dituzte.

Iragarki honek interesdunei jakinarazteko balioko du, baldin eta ezin izan bada entzunaldi-izapidea eman izanaren jakinarazpen pertsonala egin.

Era berean, epe horretan, interesa duen edozeinek aukera izango du espedientea udal bulegoetan aztertzeko eta egoki jotzen dituen alegazioak aurkezteko.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Zuhatzu Kuartango, 2020ko uztailaren 9a

Alkatea

EDUARDO FERNÁNDEZ DE PINEDO